

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

Abenduaren 21eko 365/2018 Foru Araua, interes publikokotzat aitortzen duena TDT zerbitzua emateko telekomunikazioa dorre bat jartzea, lurzoru urbanizaezinean, Berantevilla udalerriko Tobera herriko 4 poligonoko 266 partzelan

Itelazpi SA sozietate publikoak eskaera egin dio Berantevillako Udalari Arabako Foru Aldundiaren aurrean izapidetu dezan honako proiektua interes publikokotzat aitortzea: telekomunikazioa dorre bat jartzea Berantevilla udalerriko Tobera herriko 4 poligonoko 266 partzelan. Eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioan azaltzen da proiektua komunikaziogune batean datzala, TDT zerbitzua eman ahal izateko Tobera, Santurde eta Mijancas udalerriei.

Udal arkitektoak egindako txostenaren arabera, Itelazpi SA ados jarri da Toberako Administrazio Batzarrarekin, 11 m²-ko eremua laga diezaion, herri horretako ur biltegiaren ondoan, instalazioa jartzeko. Partzela lurzoru urbanizaezintzat dago sailkatua eta J.2.1. eremuan dago, J.1. babes bereziko eta J.2. babestutako landa eremuetako erabilera eta eraikuntzei buruzko ordenantzaren 1.6.1. kapituluaren arabera, Natura Intereseko Eremuan.

Berantevillako Udalak espedientea bidali du eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoko aitortpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 28.5. artikuluan xedatutakoa betetzearren.

OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuaren arabera, eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikulua arabera.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 28.5.a) artikuluan xedatzen du lurzoru urbanizaezinean ezingo direla gauzatu aplikatzekoa den legeria sektorialak edo lurralde antolamenduak interes publikokotzat aitortutako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru aldundiak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hoguei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Urriaren 26ko 306/2018 Foru Aginduaren bitartez, xedatu zen behin-behinean onestea espedientea eta jendaurrean jartzea hoguei egunez, 2018ko azaroaren 14ko ALHAOn (131. zk.) argitaratzen zen unetik aurrera. Epe horretan, ez zen alegaziorik aurkeztu.

Maiatzaren 9ko 9/2014 Legeak, telekomunikazioenak, 2. artikuluan ezarritakoaren ondorioz du interes publikoa aztertutako kasuak; izan ere, artikulua horretan ezartzen denez, "lehia araubidean ematen diren interes orokorreko zerbitzuak dira telekomunikazioak".

Horregatik guztiagatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Interes publikokotzat aitortzea Itelazpi SAK sustatutako eta Berantevillako Udalak izapidetutako proiektua: TDT zerbitzua emateko telekomunikazioa dorre bat jartzea, lurzoru urbanizaezinean, Berantevilla udalerriko Tobera herriko 4 poligonoko 266 partzelan, zeina lurzoru urbanizaezintzat sailkatuta baitago eta J.2.1. Natura Intereseko Eremu Babestutatzat; hori guztia Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikulua arabera.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du salbuesten proiektua gauzatu baino lehenago aginduzko udal baimena lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Interes publikoa aitortzeak ez du administrazio bidea amaitzen, ez eta horrek aurrera egin dezan eragozten ere. Ondorioz, ez dago haren aurkako errekurtsua aurkezterik. Berantevillako Udalak, dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, baimena emateko edo ukatzeko hartzen duen ebazpenaren aurka bakarrik jarri ahal izango da errekurtsua.

Gasteiz, 2018ko abenduaren 21a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO